

BANDOA

M^a Arantzazu Arregui Alberro, Doneztebeko Udaleko alkate udalburuak

JAKINARAZTEN DU:

Doneztebeko Udalak, 2026ko apirilaren 27an egin osoko bilkura arruntean, Doneztebeko udalerriko balorazio txostena berrikusteko proiektua onestea erabaki zuen.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 36.4 artikuluan ezarriarekin bat, balorazio txostenaren proiektua jendaurrean egonen da hogeit egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Balorazio-txostenaren proiektuaren jendaurreko informazioaren iragarkia 2026ko maiatzaren 12ko 91. NAOan argitaratu zen.

Jakinarazten zaie interesdun guztiei Balorazio Ponentziaren berrikuspena dela eta, TRACASako teknikaria Udaletxe honetara etorriko dela interesa duten pertsona guztiei arreta eman eta informazioa eskaintzeko.

Bilera 2026ko ekainaren 3an izanen da, 11:00etan, Udaletxean.

Interesa duten pertsona guztiek aukera izanen dute kontsultak egiteko edo berrikuspen horri buruzko informazioa jasotzeko.

Interesa duten pertsonen kopurua ezagutzeko eta bisitak zein kontsultak behar bezala antolatu ahal izateko, arreta jaso nahi duten pertsonen aldez aurretik izena Udaletxean ematea eskatzen zaie.

Hau guztia jendaurrean jakinarazten da, orok jakin dezan.

Donezteben, 2026ko maiatzaren 21an.

Alkatea